



2020/2021 Ikasturtea  
AZPEITIKO IKASTOLA, kontingentzia-plana

1. ERANSKINA

## 1.ERANSKINA

### HEZKUNTZA-LAN TELEMATIKOKO METODOLOGIAK

#### LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA

##### IKASLE BAT EDO BESTE ETXEAN

- Prestatutako txostena emango zaio.
- Irakaslea harremanetan egongo da telefonozko deien bidez, bideo deien bidez edo Meet saioen bidez.
- Gelan lantzen ari garen hori (arlo guztiak) izango du ikasleak eskura eta hori landuko du berak ere etxetik.

##### GELA OSOA ETXEAN

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
10:00	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA
10:30	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA
12:30	ZALANTZAK Meet saioa	ZALANTZAK Meet saioa	ZALANTZAK Meet saioa	ZALANTZAK Meet saioa	ZALANTZAK Meet saioa
16:00	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA
16:30	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA	TALDE ERDIAREN MEET SAIOA

- **GOIZEKO MEET SAIOAK**  
Hasierako Meet saioan eguna antolatu eta lanei buruz hitz egingo da. Zein proposamen burutu behar dituzten adieraziko zaie, beti ere, aniztasuna kontuan hartuz.
- **ARRATSALDEKO MEET SAIOAK**  
Eguna nola joan den jakiteko, ipuina kontatu... (mailaren arabera).  
Arlo guztietan presentzia bermatzeko, astean behin gaztelera eta ingeleseko irakasleen interbentzioa.
- **TXOSTENA**  
Errutinak eta momentuko proposamenak egongo dira, arlo guztiak kontutan edukita.  
Proiektuko zenbait gauza ere, txostenean txertatuko dira.

## LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA

### IKASLE BAT EDO BESTE ETXEAN

- Prestatutako txostena emango zaio.
- Gelan lantzen ari garena izango du ikasleak eskura (arlotu guztiak) eta hori landuko du berak etxetik.
- Irakaslea harremanetan egongo da telefono deien edo Meet saioen bidez.

### GELA OSOA ETXEAN

- **IKASTE ESPERENTZIALA EDO ZIRKULAZIO AUTONOMOA**  
Ikasle guztiek, arlotu guztiak biltzen dituen txosten bat izango dute, gelan egingo lituzketen proposamenak bilduz.
- **IKASTE GIDATUA EDO MAGISTRALA**  
Ikasgai bakoitzeko irakasleak, ordutegiko ohiko orduetan, harreman zuzena izango du ikasleekin. Beharrezko azalpenak emateko edo ikasleek lanak burutzeko erabili ahal izango dute ordu hori. Azalpenik eman beharko balu, irakasleak, aurrez korreo elektronikoz mezu bat helaraziko du Meet saioa noiz eta zein loturatan izango den adierazteko. Azalpen beharrik e balego ere, irakaslea beti egongo da prest dagokion orduan, ikasleak edozein zalantza izango balu ere (korreo elektronikoz edo Meet bidez, irakasleak aurrez emaniko loturan).
- **IKASTE AKTIBOA EDO PROIEKTUA**  
Taldekolan burutzeko irakasleak, talde bakoitzari, Meet-eko lotura bat sortu eta jakinaraziko dio. Proiektuko orduetan, irakaslea harreman zuzenean egongo da ikasle guztiekin lotura horien edo korreo elektronikoen bidez. Aurrez beharko luketen edozein jakinerazpen, korreo elektronikoz bidez helaraziko zaie.

## DBH ETA DBHO

### IKASLE BAT EDO BESTE ETXEAN

- DBHn ikasleari bere chromebook-a emango zaio.
- Klaseak streaming bidez jarraituko ditu bere ohiko ordutegian.
- Streaming sistema prest egongo ez balitz, irakasle bakoitzak adieraziko dio zer egin behar duen hau prest egon arte.
- Gaiaren arabera Alexia classroom eta google classroom erabiliko ditugu.

### GELA OSOA ETXEAN

- Ikasle bakoitzari bere chrombook-a emango zaio etxera eramateko.
- Guztiek alexia classroom eta google classroom prest.
- Gai guztiek presentzia. Hala ere, curriculumaren egokitzapena egingo da.
  
- Astero zuzeneko tutoretza egingo da.
- Eskola ordutegia mantenduko da.
- Ikasleei lanak zein epemugan egin beharko duten zehaztuko zaie.
- Zuzeneko saioak astero izango dira. Gaiaren pisuaren arabera bere maiztasuna desberdina izango da.
- Zuzeneko saioak azalpenak emateko, zalantzak argitzeko eta zuzenketak egiteko erabili ahal izango dira.